

1. BALOREZKO PROPOSAMENA


Gizartean gero eta behar handiagoa dago haurren heziketa emozionala eta balioetan oinarritutako ikaskuntza indartzeko. Jostailuek, entretenimendutik harago, tresna pedagogiko bihurtzeko ahalmena dute, haurren garapen pertsonalean eragin zuzena dutelako. Testuinguru honetan, irudimena, emozioak eta istorioak uztartzen dituzten proposamenek funtsezko eginkizuna dute etorkizuneko belaunaldien balio-sisteman.

Gure panpina ez da eguneroko behar praktiko edo premiazko bat konpontzera bideratzen, baina bai emozioekin eta hezkuntzarekin lotutako behar bati erantzuten dio: bakearen, enpatia-aren eta errespetuaren balioak belaunaldi berriei irakastea. Gaur egun, familia eta irakasle askok nabaritzen dute haurrek ez dutela tresna egokirik elkarriketaren, tolerantziaren eta elkarbizitzaren garrantzia ulertzeko. Horregatik, gure panpinak modu erraz eta erakargarrian lantzen ditu gai horiek, benetako istorioak kontatuz eta haurren sentsibiltatea nahiz hausnarketa sustatuz



Beraz, arazo fisikorik konpontzen ez dugun arren, gure bezeroei balioetan oinarritutako hezkuntzan laguntzeko asmoa beteko dugu, enpatia sustatuz eta haurrek oinarri emozional sendo bat izan dezaten lagunduz. Azken finean, badakigu bakearekin kontzienteago eta konprometituago dauden pertsonak daudela, eta, haiekin batera, beste pertsona batzuk hezi nahi ditugu, komunitate osoarentzako onura lortzeko.

Palestinako gerra kontuan izanda, palestinar jantzia duen panpina sortu dugu, palestinaren egoera gogorra erakusteko eta salatzeke. Panpina hau ez da jostailu bat soilik izango, hezkuntza-tresna bat ere: haurrei munduko errealitate desberdinak azaltzeko eta horien inguruan kontzientzia sortzeko balioko du. Aldi berean, bakearen aldeko sinbolotzat hartuko da, gerra gaitzesteko helburuarekin, “gerrarik ez” mezua argi adieraziz.



Gazan bizi den krisi humanitarioa - (NBE, 2025)

Aurretik esandakoa kontuan izanik, gure produktua Palestinako egoera larrian oinarrituta dagoela esan dezakegu, eta helburua gizonei, emakumeei eta haurrei egoeraz kontzientzia piztea da. Horretarako, helburu etiko, moral eta sozial argia beteko dugu: gure panpinak ez ditugu soilik itxuragatik edo jostailu direlako saldu nahi, baizik eta ordezkatzeko dutenagatik: elkartasuna, justizia, enpatia Gazako herriarekin eta bakea.

Gure asmo nagusia betetzeko, ONG gisa aurkeztu nahi dugu gure burua, Palestinako herriaren alde, irabazi asmorik gabe, eta hezkuntza-proiektu bat sortzeko helburuarekin.

Panpina bakoitzaren atzean dagoen historia azaldu nahi dugu; zer sinbolizatzen duen, zer mezua duen... Horrekin batera, irabazitako diru-kantitate gehiena Gazara bideratuko dugu.



Ekoizpenari dagokionez, panpinak material jasagarriekin eta birziklatuekin egingo ditugu, enpresetatik baztertutako materialak erabiliz, beti egoera onean egotekotan. Horri esker, kostuak murriztu eta baliabideak hobeto aprobetxatuko ditugu. Panpinen kalitatea nahita ez da perfektua izango; Palestinako herriaren egoera zaila irudikatu nahi dugu, haien errealitatea errespetatuz.

Diseinuari dagokionez, panpin bakoitzak sinbolo emozional eta esanguratsuak izango ditu: bakearen eta itxaropenaren ikurrak (olibondo lore bat, uso bat edo bandera zuri bat, adibidez). Panpinek Palestinako banderaren koloreak erabiliko dituzte, haien kultura eta mezua adierazteko.

Produktu hauek jostailu edo arte-lan moduan salduko dira, ez enpresaren irabazirako produktu gisa. Aurrez esan bezala, irabazi gehienak Gazara bideratuko dira, eta zati txiki bat enpresa mantentzeko eta gehiago ekoizteko erabiliko da. Gainera, haurren segurtasun arauak beteko dira (jostura sendoak, material ez-toxikoak), eta arte-lan moduan saltzen badira, iraunkortasuna eta kalitate ona bermatuko dira.

Amaitzeko, salmentekin eta “Jostailu Politikoak” proiektuaren helburu nagusiarekin lotuta, ONG moduan azalduko dugu zenbat diru bildu den eta nola erabili den. Horrela, bezeroek guregan konfiantza izango dute eta guk kontzientzia soziala zabaltzen jarraituko dugu. Beharrezkoa bada, legearen arabera jardungo dugu, duintasuna eta justizia bermatuz.

